



RASFF TXOSTENA

ELIKAGAIAK


ALERTAK eta JAKINARAZPENAK

- 🕒 Alertak eta jakinarazpenen kopurua
- 📂 Jakinarazpenen kategorizazioa
- 📊 Antzemandako arriskuen jatorria
- 📊 Antzemandako arriskuak
- 📊 Azken urteen arteko konparazioa

2021ko URTEKO LABURPENA ➔



ALERTA ETA JAKINARAZPENEN KOPURUA

2021ean, Europako Alerta azkarra sistemaren (RASFF) bidez **4166 alerta eta jakinarazpen** jaso dira.



JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA



2021 urtean zehar, elikagaiei buruzko 4166 jakinarazpen izan dira. Horietatik, 1425 (%34) **alertak** izan dira, 1369 (%33) **informazio-jakinazpenak** eta 1372 (%33) **mugan egin diren ukapenak**.



ANTZEMANDAKO ARRISKUEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorriari dagokionez, urtean zehar, aipatu behar da **Europak (%44)** eta **Asiak (%33,5)** eragin dituztela jakinarazpen gehienak, pasa den urtean bezala.



Urteko batezbestekoak hurrengoak izango lirateke:



ANTZEMANDAKO ARRISKUAK

2021 urtean, **hondakinek** eragin dituzte jakinarazpen gehien (**%31,5**), ehunekoa nabarmen igo delarik. **Kutsadura biologikoa** da jakinarazpen gehien sortu dituen bigarren taldea (**%23,5**), aurreko urtetik jaitsi direlarik. Beste taldeen kopuruak mantendu egin dira aurreko urtearekin konparatuz.


Hauek dira antzemandako arriskuei dagozkien urteko neurriak eta lauhilekoko izan duten bilakaera:




..... ANTZEMANDAKO ARRISKUAK

Kutsadura biologikoaren kasuan, **Salmonela** nabarmendu behar dugu kutsadura biologikoen **%66a** eragin baitu.


Honako hau izan da kutsadura biologikoen izan duten joera:



Badira Salmonela espezie batzuk giza osasunerako arriskutsuak direnak (*S.typhimurium* y *S.enteritidis*) eta bestelako Salmonelak, azken hauek, **Salmonela exotikoak**, nabarmendu behar ditugularik (**68,5%**), aurreko urtearen antzekoa. *S.enteritidis* ere %25arekin mantentzen da eta *S.typhimurium* apurtxo bat jaitsi da pasa den urtearekin konparatuz. Urteko eboluzioa izan da:




Kutsadura biologikoarekin jarraituz, aurtien **Listeria monocytogenes** kasuek gora egin dute, eta gaztek (batez ere bigunek) eragin dute jakinarazpenen % 33,5a.



..... ANTZEMANDAKO ARRISKUAK


MIKOTOXINEN kasuan, kasu gehienak (**%77,5**) **Aflatoxinek** eragin dituzte. **Kakahuetea** produktu inplikatua da kasuen **% 33an**.



Hondakinei dagokienez, **FITOSANITARIOEN** hondakinak **% 96** izan dira. Klorpirifoa, European erabiltzea debekatuta dagoela, heren batean baino gehiagotan azaltzen da, bai zitrikoetan (pomeloak, laranjak, limoiak eta mandarinak), bai piperretan, batez ere turkiar jatorrikoak.

Iruzurren kasuan, **DEBEKATUTAKO SUSTANTZIAK elikagai-osagarrietan** dira nabarmenenak, nahiz eta edari energetiko, te eta infusioetan ere agertu. Etiketetan **ADIERAZI GABEKO ALERGENOAK** dira bigarren. Bien artean, jakinarazpenen **% 80** inguru dira.

Urteko eboluzioa hurrengo hau izan da:



AZKEN URTEEN ARTEKO KONPARAZIOA

